

### FILOSOFIAKO MINTEGI IREKIA

Maiatzaren 3an, 13:00etan, Batzar Aretoan, **Mariluz Esteban eta Agustín Arrieta** mintzatuko dira gai honetaz: **“Sexu indarkeria eta artistak: zer egin haien artelaneekin?”**

**Non:** HEFA I - Tolosa etorb. 70. Batzar Aretoan

### SEMINARIO ABIERTO DE FILOSOFÍA

El 3 de mayo, a las 13:00h., en la Sala de Juntas, **Mariluz Esteban y Agustín Arrieta** hablarán en euskera sobre el siguiente tema: **“Sexu indarkeria eta artistak: zer egin haien artelaneekin?”**

**Lugar:** HEFA I - Av. Tolosa 70. Sala de Juntas.

### XXVI HEZIKETA-TEKNOLOGIARI BURUZKO UNIBERTSITATE JARDUNALDIAK

Ekainaren 27tik 29ra burutuko dira Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. JUTE18ko gaia:

**“KONPETENTZIA ETA HIRITARTASUN DIGITALA  
GIZARTE ERALDAKETARAKO”** izango da.

Informazio guztia eskuragarri duzu helbide honetan:  
<https://www.ehu.eus/eu/web/jute2018/>  
Edota kontsultak egiteko: [jute2018@gmail.com](mailto:jute2018@gmail.com).

### XXVI JORNADAS UNIVERSITARIAS DE TECNOLOGÍA EDUCATIVA (JUTE)

Se realizarán en la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología de Donostia-San Sebastián, durante los días 27-29 de junio. La temática de JUTE18 será:

**“LA COMPETENCIA Y CIUDADANÍA DIGITAL PARA  
LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL”**

Toda la información disponible en: <https://www.ehu.eus/es/web/jute2018/> o realiza tus consultas en [jute2018@gmail.com](mailto:jute2018@gmail.com)



### ANTZERKIA: MARAT-SADE

Antzerki Faktoriaren eskutik, Barriola Auditorioan, apirilaren 24an.

Peter Weiss idazle alemaniarraren Marat-Sade (1964) antzezana eskaini zuen **UPV/EHUko Antzerki Faktoriak** pasa den asteartean. Fakultateko zenbait **ikasle, irakasle, eta Administrazio eta Zerbitzuetako langilek** hartu zuten parte presentzia, ahotsa, pasioa, eromena, iraultza eta ustelkeria, besteak beste, errepresentatzen dituen eszenaratze horretan.

ZORIONAK denoi! Eta eskerrik asko!

### TEATRO: MARAT-SADE

Factoría de Teatro, Auditorio Barriola, 24 abril

La **Factoría de Teatro de la UPV/EHU** representó el pasado martes la obra del alemán Peter Weiss Marat-Sade (1964). En dicha Factoría participan **alumnas y alumnos, profesorado y personal de Administración y Servicios de la Facultad**, quienes llevaron a escena con su cuerpo y presencia, la voz, la pasión, la locura, la revolución y la corrupción del cambio de siglo en Francia.

¡FELICIDADES A TODAS Y A TODOS!  
¡Y muchas gracias!



### AMELIA BARQUÍN ETA JOSEBA IBARRAREN MAHA-INGURUA: ETORKINAK ETA EUSKARA

Gai horren inguruan jardun zuten Amelia Barquín Mondragon Unibertsitateko irakasleak eta Joseba Ibarra Berritzegune Nagusiko Aniztasuna eta Elkarbizitza arloko aholkulariak apirilaren 19an, **“Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanizetan”** irakasgaiko ikasleentzat antolatu genuen mahai-inguruan. Kultura eta hizkuntza aniztasunak egungo euskal eskoletara ekarri dituen aukera eta erronka berriez hitz egin zuten Barquínek eta Ibarrek.



## GIPUZKOA TALENTIA

Aurtengo Talentia programaren edizioan parte hartzeko, gure **Fakultateko 10 ikasle izan dira aukeratuta:** Gizarte Hezkuntzako 3 Pedagogiako 4 Lehen Hezkuntzako 3.

**ZORIONAK DENEI!!!**

## JOSEP MARIA ARTIGAL: "APRENDEMOS (A HABLAR) CUANDO ALGUIEN NOS ESCUCHA

Josep Maria Artigal irakasleak oso hitzaldi arrakastatsua eskaini du HEFA II eraikineko Areto Nagusian **haurrek hizkuntzaz nola jabetzen diren eta, batez ere, beraren erabileran nola gaitzen diren azalduz**. Haur Hezkuntzan hasi eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntza ere ukituz, saiora hurbildutako ikasle eta irakasle guztiak ipuin kontaketa jarri ditu egitearen eta, nagusiki, entzuleak izatearen garrantziaz aritzeko. Laburbilduz eta Artigalen hitzetan, **haurrei hitz egiteko gogo sortu behar zaie** eta, horretarako, norik entzuna izatea da oinarritzko baldintza. Merezitako txalo zaparradak eman zion amaiera saioari. Eskerrik asko, Josep Maria.



## Erasmus IIP, AZP

Irakaskuntza-helburua duen ERASMUS mugikortasun-programa batean parte hartzeko epea zabaldu da. Informazio gehiago nahi duenak hemen du [esteka](#).

## ERASMUS PDI, PAS

Abierta la convocatoria del programa ERASMUS de movilidad con fines de docencia. Para más información consultad el siguiente [enlace](#).

## BESTELAKOAK - OTROS

- **Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak 2018-2019 ikasturtean "English Friendly Course (EFC)" irakasgaiak proposatzeko eskaria egiteko epea ireki du:** (<https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/english-friendly-courses-2018-2019>) Eskaria aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 11artekoa izango da. Interesa duenak mesedez **Nere Amenabari** ([nere.amenabar@ehu.es](mailto:nere.amenabar@ehu.es)) bidali ([dokumentu hau](#)) maiatzaren 10a baino lehen.

Publicada la convocatoria para la traducción o corrección en inglés de las guías docentes resumidas de las asignaturas "English Friendly Course" dentro del Plan de Plurilingüismo: : (<https://www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak/english-friendly-courses-2018-2019>) El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 11 de mayo. Si estas interesado/a envía este [documento](#) a Nere Amenabar ([nere.amenabar@ehu.es](mailto:nere.amenabar@ehu.es)) hasta del 10 de mayo.

## OHAR GARRANTZITSUA

Fakultateko kide guztiak (ikasleak eta AZP barne) buletin hau erabili dezakete antolatutako ekitaldien edo jardueren berri emateko. Beraz, fakultateko kideen artean halako berriren bat zabaldu nahi baduzu, buletinean txertatu nahi duzun testuarekin (JPG, BMP o GIF formatuko argazkiekin, dokumentuekin,...) batera, bidal ezazu mezu bat [mariaje.parras@ehu.es](mailto:mariaje.parras@ehu.es) edo/eta [nere.amenabar@ehu.es](mailto:nere.amenabar@ehu.es) helbidera.

## AVISO IMPORTANTE

Todo el personal (incluido alumnado y PAS) de la facultad puede hacer uso de este boletín para informar acerca de eventos y actividades que organice. Si estás interesado en que los miembros de la facultad tengan conocimiento a través del boletín de dichas noticias, envía un mensaje (junto con fotografías en formato JPG, BMP o GIF, documentos...) a [mariaje.parras@ehu.es](mailto:mariaje.parras@ehu.es) y/o [nere.amenabar@ehu.es](mailto:nere.amenabar@ehu.es)

Si deseas darte de BAJA en el BOLETIN envía un [email](#) con el asunto Baja boletín Buletinetik BAJA emateko [email](#) bat idatzi gaia Baja buletina idatzi

Eraikin I, Av. Tolosa, 70 - Teléfono: 94301 8260  
Eraikin II, Oñati Plaza, 3 - Teléfono: 943 01 8446